



BIZKAIKOA FEFP BARNEKO KONTRATAZIO JARRAIBIDEAK

**INSTRUCCIONES INTERNAS DE CONTRATACION DE
BIZKAIKOA EPEF**

INDICE

1. PREÁMBULO

2. REGLAS GENERALES DE LAS INSTRUCCIONES

2.1 Objeto

2.2 Obligatoriedad

2.3 Interpretación de las Instrucciones

3. CONTRATOS

3.1 Concepto y delimitación.

3.2 Clases y tipos de contratos.

3.3 Capacidad y solvencia.

3.4 Objeto y precio.

4. PROCEDIMIENTOS DE ADJUDICACIÓN

4.1 Procedimiento de los contratos menores

4.2 Procedimiento Abreviado.

4.3 Procedimiento Ordinario.

4.4 Procedimiento Negociado.

4.5 Procedimiento Dialogo Competitivo.

5. ÓRGANOS DE CONTRATACIÓN

6. FORMALIZACION DE LOS CONTRATOS

6.1 Contenido

6.2 La forma de los contratos

7. PUBLICIDAD

8. JURISDICCIÓN COMPETENTE.

1. PREÁMBULO.

AURKIBIDEA

1. HITZAURREA

2. JARRAIBIDEEN ARAU OROKORRAK

2.1 Xedea

2.2 Nahitaezkotasuna

2.3 Jarraibideen interpretazioa

3. KONTRATUAK

3.1 Kontzeptua eta zedarritzea.

3.2 Kontratu-klaseak eta -motak.

3.3 Ahalmena eta kaudimena.

3.4 Xedea eta prezioa.

4. ESLEITZEKO PROZEDURAK

4.1 Kontratu txikien prozedura

4.2 Prozedura laburtua.

4.3 Prozedura arrunta.

4.4 Prozedura negoziatua.

4.5 Lehia-elkarrizketaren prozedura.

5. KONTRATAZIO-ORGANOAK

6. KONTRATUAK FORMALIZATZEA

6.1 Edukia

6.2 Kontratuen forma

7. PUBLIZITATEA

8. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

1. HITZAURREA.

BizkaiKOA EPEF, como Ente Público de Derecho Privado, con personalidad jurídica propia y plena capacidad jurídica, desde su creación con la promulgación de la Norma Foral 5/2010, de 22 de diciembre de 2010, tiene como fin la gestión del servicio de difusión del patrimonio cultural en Bizkaia y más concretamente la gestión integral de los museos y espacios patrimoniales de titularidad plenamente foral.

Con el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos de Sector Público (TRLCSF, en adelante), se ha procedido a integrar en un texto único todas las modificaciones introducidas a la Ley 30/2007, de 30 de Octubre, de Contratos del Sector Público que incorporaba la Directiva 2004/18 CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 31 de marzo de 2004, que tiene por objeto regular la contratación del sector público, a fin de garantizar que la misma se ajusta a los principios de libertad de acceso a las licitaciones, publicidad y transparencia de los procedimientos, y no discriminación e igualdad de trato de los candidatos. Y fija su ámbito de aplicación a los contratos onerosos, cualquiera que sea su naturaleza jurídica, y que se celebren por los entes, organismos y entidades que forman parte del sector público, según el art. 3 del TRLCSF.

La aplicación del presente TRLCSF, tiene como novedad, que en su ámbito subjetivo, en virtud del contenido del art. 3, integra dentro del sector público a BizkaiKOA, con carácter de poder adjudicador.

Asimismo, el Texto Refundido de la Ley de Contratos de Sector Público, distingue, por un lado, las reglas aplicables a los contratos sujetos a regulación armonizada, (SARA), en cuanto su preparación se rige por el contenido del art. 137.1 y en lo relativo a su adjudicación será de aplicación el art. 190. Y por otro lado, los contratos no sujetos a armonización (NO SARA) su preparación se realiza conforme a las indicación del art. 137.2 y en los que se refiere a su adjudicación se aplica el contenido

BizkaiKOA FEPE Erakundea zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat da, berariazko nortasun juridikoa eta ahalmen juridiko osoa duena. Erakundea 201eko abenduaren 22ko 5/2010 Foru Araua ateratzearekin batera sortu zen, eta orduetik, Bizkaian kultura ondarea zabaltzeko Zerbitzua kudeatu eta hain zuzen ere Aldundiarenak bere osotasunean diren ondare azpiegitura zein museoak kudeatzea du bere xedea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez (SPKLTB, aurrerantzean), testu bakar batean bildu dira Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2004 Legean sartutako aldaketa guztiak. Lege hori, hain zuzen, Europako Legebiltzarraren eta Kontseiluaren 2004ko martxoaren 31ko 2004/18 EE zuzentarauan barneratu zen, xede honekin: sektore publikoko kontratazioa arautzea, lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren publikitate- eta gardentasun-printzipioak eta hautagaien bereizkeriarik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak betetzen direla bermatzeko. Lege horren aplikazio-eremua, SPKLTBko 3. artikulua arabera, sektore publikoko ente, erakunde eta entitateek egiten dituzten kostubidezko kontratuak dira, kontratuok edozein izaera juridiko dutela ere.

SPKLTBaren aplikazioak duen berritasuna da bere eremu subjektiboan, 3. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, sektore publikoaren barruan sartzen duela BizkaiKOA FEPE Erakundea, eta botere esleitzalea aitortzen diola.

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak bereizi egiten ditu, batetik, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuei aplikatu beharreko arauak (EHM) —kontratu horiek prestatzeko 137.1 artikulua edukiari jarraitu behar zaio, eta esleitzeko, berriz, 190. artikulua aplikatu behar da—; eta, bestetik, harmonizazioaren mende ez dauden kontratuei (EZ EHM) aplikatu beharreko arauak; kontratu horiek, hain zuzen, 137.2 artikuluko

del art. 191, que obliga que en todo caso, a la sumisión de los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación, y como los órganos competentes de las entidades aprobarán unas instrucciones, de obligado cumplimiento en el ámbito interno de las mismas, por la que queden garantizados la efectividad de los citados principios y que el contrato se adjudique a quien presente la oferta económica más ventajosa.

2. REGLAS GENERALES DE LAS INSTRUCCIONES.

2.1 Objeto

Estas instrucciones tienen por objeto regular, los contratos no sujetos a regulación armonizada que celebre BizkaiKOA EPEF, a fin de garantizar que la contratación, se ajuste a los principios expuestos en el art. 191 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Contratos de Sector Público, y con ello asegurar una eficiente utilización de los fondos destinados a la realización de obras, la adquisición de bienes y la contratación de servicios. Adjudicando el contrato a quien presente la oferta económicamente más ventajosa.

2.2 Obligatoriedad

Las presentes instrucciones son de obligado cumplimiento para cualquier contrato oneroso, que celebre BizkaiKOA EPEF que no esté sujeto a regulación armonizada. Y con el fin de cumplir el contenido del art. 191 del TRLCSP, estas instrucciones se pondrán a disposición de todos los interesados, en participar en los procedimientos de adjudicación de contratos regulados por ellas, publicándose el perfil del contratante en Internet, en la página Web: www.bizkaikoa.bizkaia.net.

2.3 Interpretación

jarraibideen arabera prestatu behar dira, eta esleitzeko, berriz, 191. artikuluaen edukia aplikatu behar da; artikulua horretan xedatzen denez, nahitaez bete beharrekoak dira publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioak, eta, gainera, erakundeetako organo eskudunek jarraibide batzuk onartu behar dituzte, erakunde horien barne-eremuan nahitaez bete beharrekoak; jarraibide horien bidez, aipaturiko printzipio horiek bermaturik geratu behar dute, eta kontratua eskaintza ekonomiko onuragarriari esleitu behar zaio.

2. JARRAIBIDEEN ARAU OROKORRAK.

2.1 Xedea

Jarraibide hauen xedea da erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden BizkaiKOA FEEP Erakundearen kontratuak arautzea, kontratazioak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 191. artikuluan azaldutako printzipioen arabera egingo direla bermatzeko, eta, modu horretara, obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeke funtsak modu eraginkorrean erabiliko direla ziurtatzeko. Horretarako, kontratua eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duenari esleituko dio.

2.2 Nahitaezkotasuna

Jarraibide hauek nahitaez bete behar dira erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden BizkaiKOA FEEP Erakundearen kostubidezko kontratu guztietan. Eta SPKLTBko 191. artikuluan ezarritakoa betetzeko, jarraibide hauek eskuragarri ipiniko dira berauen bidez arautzen diren kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duten guztientzat. Horretarako, Interneten argitaratuko dira, kontratatzailearen profilean, www.bizkaikoa.bizkaia.net webgunean.

2.3 Interpretazioa

Cualquier duda que pudiera surgir en la interpretación y aplicación de estas Instrucciones en relación a los procedimientos de adjudicación que las mismas regulan se resolverá de modo que, a su tenor, se logre la máxima expansión y efectividad de los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación.

Las reglas incluidas en estas instrucciones para la adjudicación de los contratos no sujetos a regulación armonizada, se interpretarán en consonancia con las normas establecidas en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público y sus disposiciones de desarrollo, prevalecerán, siempre en caso de duda, sobre estas instrucciones.

3. CONTRATOS

3.1 Concepto y delimitación.

Están sometidos a estas Instrucciones los contratos onerosos de obra, suministro y servicios no sujetos a regulación armonizada que celebre BizkaiKOA EPEF, para el cumplimiento de sus fines.

Son contratos sujetos a regulación no armonizada, los contratos relacionados con el art. 13.2 del TRLCSP, los contratos de servicios comprendidos en las categorías 17 a 27, ambas inclusive, del Anexo II de dicho texto legal, y los contratos de obras, los de suministro, y los de servicios comprendidos en las categorías 1 a 16, ambas inclusive, del Anexo II del TRLCSP cuando no superen las cuantías que establecen los arts. 14,15 y 16 del TRLCSP.

Quedan excluidos de estas instrucciones, los siguientes contratos:

- Los negocios y relaciones jurídicas relacionadas en el art. 4 del TRLCSP.
- Los contratos sujetos a la regulación armonizada conforme a los artículos 13 y concordantes del

Jarraibide hauek arautzen dituzten esleipen-prozedurak interpretatzean eta aplikatzean sor litezkeen zalantzak publizitate, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioetan ahalik eta hedapen eta eraginkortasunik handiena lortzeko moduan ebatziko dira.

Jarraibide hauetan erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak esleitzeko moduaren inguruan jasotzen diren arauak interpretatzeko orduan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta lege hori garatzeko xedapenetan ezarritako arauak hartuko dira kontuan; alabaina, zalantzarik izanez gero, jarraibide hauek nagusituko dira.

3. KONTRATUAK

3.1 Kontzeptua eta zedarritzea.

Jarraibide hauen mende egongo dira BizkaiKOA FEEP Erakundeak bere xedeak betetzeko egiten dituen eta erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden obra, hornikuntza eta zerbitzuen kostubidezko kontratuak. Erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuak honako hauek dira: SPKLTBko 13.2 artikularekin zerikusia dutenak, lege-testu horretako II. Eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean, biak barne, sartuta dauden zerbitzu-kontratuak, eta SPKLTBko II. Eranskineko 1. kategoriatik 16.era bitartean, biak barne, sartuta dauden obra-kontratuak, hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, betiere ez badituzte gainditzen SPKLTBko 14., 15. eta 16. artikuluetan ezarritako zenbatekoak.

Jarraibide hauetatik kanpo geratuko dira kontratu hauek:

- SPKLTBko 4. artikuluan zerrendatutako negozio eta harreman juridikoak.
- SPKLTBko 13. artikuluari eta bat datozen gainerako artikuluei jarraituz erregulazio harmonizatuaren

TRLCSF, cuya adjudicación se registrará por lo dispuesto en el art. 190 del mismo texto legal.

3.2 Clases y tipos de contratos.

Para la clasificación de los tipos de contratos, podemos destacar los siguientes:

a) Contrato de obras: son aquellos contratos que tienen por objeto la realización de una obra o la ejecución de alguno de los trabajos enumerados en el Anexo I o la realización por cualquier medio de una obra que responda a las necesidades especificadas por la entidad del sector público contratante.

b) Contrato de suministro: Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles.

c) Contrato de servicios: Son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro.

3.3 Capacidad y solvencia de los operadores económicos (licitadores).

Sólo podrán contratar con BizkaiKOA EPEF, las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incurso en una prohibición de contratar de las recogidas en el art. 60.1 del TRLCSF y acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional. Los empresarios deberán contar, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad que constituya objeto de contrato.

3.4 Objeto y precio.

Los contratos que celebre BizkaiKOA EPEF han de tener un objeto determinado, sin que pueda fraccionarse con la finalidad de disminuir su cuantía

mende dauden kontratuak. Kontratu horiek esleitzeko, lege-testu horretako 190. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3.2 Kontratu-motak.

Kontratu-motak sailkatzeko, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

a) Obra-kontratua: Obra-kontratua da objektutzat duena obraren bat egitea, I. eranskinean zerrendaturiko lanetako bat egitea edo sektore publiko erakunde kontratatzaileak zehaztutako beharizanak betetzeko edozein bitarteko erabiliz obra bat gauzatzea.

b) Hornidura-kontratua: Hornidura-kontratua da objektutzat duena produktu edo ondasun higigarriak eskuratzea, finantza-errentamenduan ematea edo errentan hartzea —erosteko aukerarekin zein gabe—.

c) Zerbitzu-kontratua: Zerbitzu-kontratuak dira objektutzat egiteko prestazio bat dutenak, jarduera bat gauzatzuz gauzaten dena, edo obraz edo horniduraz besteko emaitza lortzera bideratutako egiteko prestazio bat dutenak.

3.3 Operadore ekonomikoaren (lizitatzailen) ahalmena eta kaudimena.

BizkaiKOA EPEF Erakundearekin kontratatzeko, pertsona natural edo juridikoen, izan espainiar zein atzeritar, jarduteko erabateko ahalmena izan behar dute, ezin dute izan SPKLTBko 60.1 artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako bat ere, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatu behar dute. Enpresaburuek enpresa-gaikuntza edo profesionala izan behar dute, kontratuaren xede den jarduera egiteko hala eskatzen bada.

3.4 Xedea eta prezioa.

BizkaiKOA EPEF Erakundearekin egiten diren kontratuek xede jakin bat izan behar dute, eta xede hori ezingo da zatikatu zenbatekoa gutxitzeko eta

y eludir los requisitos de publicidad o los relativos al procedimiento de adjudicación que en cada caso correspondan.

En cuanto al precio, los contratos que se celebren por BizkaiKOA EPEF, tendrán un precio cierto que deberá expresarse en euros, sin perjuicio de que su pago pueda hacerse mediante la entrega de otras contraprestaciones en los casos en que el Texto Refundido Ley de Contratación del Sector Público, así lo prevea. El precio del contrato podrá formularse tanto en términos de precios unitarios referidos a los distintos componentes de la prestación o a las unidades de la misma que se entreguen o ejecuten, como en términos de precios aplicables a tanto alzado a la totalidad o a parte de las prestaciones del contrato. En todo caso se indicará, como partida independiente, el importe del Impuesto del Valor Añadido que deberá soportar la Administración.

4. PROCEDIMIENTOS DE ADJUDICACIÓN.

El procedimiento de adjudicación garantizará la efectividad de los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación, y que el contrato sea adjudicado a quien presente la oferta económicamente más ventajosa.

Las instrucciones internas de contratación, procedimientos y requisitos aplicables a cada tipo de contrato permiten que se adjudiquen formas diferentes. La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido. En otros supuestos pueden utilizarse otros procedimientos como el negociado y el dialogo competitivo y los contratos menores.

Así podemos distinguir los siguientes procedimientos de adjudicación:

4.1 Los contratos menores:

Se consideran contratos menores los contratos inferiores a 50.000 euros, cuando se trate de

publizitate-betekizunak edo kasuan kasuko esleipen-prozedurari dagozkion betekizunak saihesteko helburuarekin.

Prezioari dagokionez, erakunde honek egiten dituen kontratuek prezio zehatz bat izango dute, eta prezio hori eurotan adierazi beharko da; dena dela, beste kontraprestazio batzuk emanez ere ordaindu ahalko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak hala aurreikusten duen kasuetan. Kontratuaren prezioa bi modu hauetako batean adierazi ahalko da: prestazioaren osagaiei edo eman edo egikaritu diren prestazio-unitateei dagozkien unitate-prezioak zehaztuta, edo kontratuko prestazio guztien edo zati baten oroharreko prezioari aplikagarri zaizkion prezioak zehaztuta. Nolanahi ere, partida independente gisa, Administrazioak Balio Erantsiaren gaineko Zergan zer zenbateko jasan beharko duen adieraziko da.

4. ESLEITZEKO PROZEDURAK

Esleitzeko prozedurak publizitate, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuko du, eta kontratua eskaintza ekonomikorik onuragarriena aurkezten duenari esleituko zaiola.

Kontratu-mota bakoitzari aplikagarri zaizkion kontratazio, prozedura eta betekizunen barne-jarraibideek bide ematen dute esleipena hainbat modutara egiteko. Esleipena, eskuarki, prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz egingo da. Beste egoera batzuetan erabili ahalko dira beste prozedura batzuk ere, hala nola negoziatua, lehiaketa-eztabaida eta kontratu txikiak.

Hala, esleitzeko prozedura hauek bereiz ditzakegu:

4.1 Kontratu txikiak:

Kontratu txikiak 50.000 eurotik beherakoak izango dira, baldin eta obra-kontratuak badira, eta 18.000

contratos de obras, o a 18.000 euros, sin IVA, cuando se trate de contratos de servicios y suministros. Podrán adjudicarse directamente a cualquier empresario con capacidad de obrar y que cuente con la habilitación profesional necesaria para realizar la prestación, en estos contratos solo se exigirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente.

4.2 Procedimiento abreviado:

Dentro de este procedimiento se adjudicarán los contratos de servicios y suministros de importe superior a 18.000 Euros e inferior a 50.000 Euros, donde la unidad de contratación solicitará al menos tres ofertas, si fuera posible. El plazo mínimo para recibir ofertas será de 10 días, salvo que se considere una prestación urgente, donde el plazo se reduce a cinco días.

Valoradas las ofertas, la unidad de contratación, en el plazo máximo de 10 días, desde la finalización de presentación de la documentación solicitada, procederá a la adjudicación y se podrá ordenar su publicación en el perfil del contratante.

4.3 Procedimiento ordinario:

a) Pliego de condiciones. En este procedimiento se adjudicarán los contratos de importe superior a 50.000 euros, sin IVA. BizkaiKOA EPEF elaborará un pliego de condiciones en el que se establezcan las características básicas del contrato, el régimen de admisión de variantes, las modalidades de recepción de ofertas, los criterios de adjudicación y las garantías que deberán constituir. Estos pliegos serán parte integrante del contrato.

b) Publicidad: BizkaiKOA EPEF publicará la información relativa a la licitación, incluidos los pliegos en el Perfil del Contratante (Página Web...), a los efectos que el empresario interesado pueda presentar

c) Plazo de presentación: Todo empresario

eurotik beherakoak (BEZik gabe), zerbitzu-kontratuak eta hornidura-kontratuak badira. Kontratu txikiak zuzenean esleitu ahal izango dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi esleitu ahal izango zaizkie. Kontratu hauetan, gastua onartzea eta dagokion fakturari eranstea besterik ez da eskatuko.

4.2 Prozedura laburtua:

Prozedura honen barruan, 18.000 euro baino gehiagoko eta 50.000 euro baino gutxiagoko zerbitzu-kontratuak eta hornidura-kontratuak esleituko dira. Kontratazio-unitateak, ahal izanez gero, hiru eskaintza eskatuko ditu gutxienez. Eskaintzak jasotzeko gutxieneko epea 10 egunekoa izango da, baina prestazio urgentea bada, bost egunera ere murriztu ahalko da epe hori.

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-unitateak, eskatutako dokumentuak aurkezteko azken egunetik 10 egun igaro baino lehen, kontratua esleituko du, eta kontratatzailearen profilean argitara dadila agindu ahalko du.

4.3 Prozedura arrunta:

a) Baldintza-agiria. Prozedura honetan, 50.000 euro baino gehiagoko (BEZik gabe) kontratuak esleituko dira. BizkaiKOA FEED Erakundeak plegu bat prestatu beharko du, eta, bertan, honako hauek zehaztu beharko ditu: kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak jasotzeko moduak, esleipen-irizpideak eta jarriko beharreko bermeak. Plegu hori kontratuaren zati izango da.

b) Publizitatea: BizkaiKOA FEED Erakundeak kontratatzailearen profilean (webgunea...) argitaratuko du lizitazioari buruzko informazioa, pleguak barne direla, enpresaburu interesdunek lizitazioan parte hartu ahal izan dezaten. Nolanahi ere, jarraibide hauetako 7. puntuan ezarritakoa beteko da.

c) Aurkezteko epea: Enpresaburu interesdunek

interesado podrá presentar una proposición conforme al anuncio, o en su caso, según lo expuesto en el pliego de condiciones, en los plazos aplicables en cada caso.

d) Valoración de ofertas: Una vez transcurrido el plazo de presentación de las proposiciones el órgano de contratación, comprobada la personalidad y solvencia de los solicitantes, realizará un análisis de sus ofertas y las estructuras y valoración de las mismas.

e) La adjudicación: La adjudicación de los contratos recaerá siempre en la oferta económicamente más ventajosa conforme a los criterios objetivos vinculados al objeto del contrato, que se detallarán en los pliegos, y que deberán garantizar el respeto a los principios de transparencia, no discriminación, igualdad de trato y evaluación en condiciones de competencia efectiva. Deberá darse prioridad a criterios que puedan cuantificarse por referencia a factores objetivos y ser expresados en cifras o porcentajes. Cuando sólo se utilice un criterio de adjudicación éste ha de ser, necesariamente, el precio.

f) La notificación y publicidad de la adjudicación: Una vez resuelto el procedimiento de licitación, la adjudicación se comunicará al oferente que haya resultado elegido a efectos de proceder a su formalización y se publicará en el perfil del contratante, en el plazo máximo de 15 días a partir de la adjudicación. Cuando la convocatoria del contrato hubiera sido publicada en algún otro medio de publicidad la adjudicación se publicará también en esos mismos medios para garantizar una adecuada transparencia.

4.4 Procedimiento negociado:

Es aquel procedimiento en que la adjudicación recaerá en el licitador justificadamente elegido por el órgano de contratación, tras efectuar las consultas con diversos candidatos y negociar las condiciones del contrato.

En este procedimiento hay que distinguir, aquéllos

iragarkian ezarritakoari jarraituz aurkeztu ahalko dituzte eskaintzak, edo, bestela, baldintza-agirian ezarritakoari jarraituz, kasu bakoitzean aplikagarri diren epeetan.

d) Eskaintzen balorazioa: Eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-organoak, eskatzaileen nortasuna eta kaudimena egiaztatu ostean, eskatzaile horien eskaintzak eta egiturak aztertu eta baloratuko ditu.

e) Esleipena: Kontratua, beti, eskaintza ekonomiko onuragarrienari esleituko zaio, kontratuaren xedeari lotutako irizpide objektiboekin bat etorritik. Irizpide horiek pleguetan zehaztuko dira, eta beti bermatu beharko dituzte gardentasunaren, bereizkeriarik ezaren, tratu-berdintasunaren eta lehia eraginkorra bermatuz egindako ebaluazioaren printzipioak. Lehentasuna emango zaie faktore objektiboak aipatuz kuantifika litezkeen eta zifra edo ehunekotan adieraz litezkeen irizpideei. Esleitzeko irizpide bakar bat erabiltzen bada, irizpide hori, nahitaez, prezioa izango da.

f) Esleipenaren jakinarazpena eta publizitatea: Licitazio-prozedura ebatzi ostean, hautatutako eskaintzaileari esleipenaren berri emango zaio, kontratua formalizatzeko, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratua esleitu eta 15 egun igaro baino lehen. Kontratuaren deialdia beste publizitate-bideren batean argitaratu bada, hedabide horietan ere argitaratuko da esleipena, gardentasun egokia bermatzeko.

4.4 Prozedura negoziatua:

Prozedura honetan, kontratazio-organoak erabakiko du kontratua zein lizitatzailerari esleitu, behar bezala arrazoituta. Horretarako, aurrez, kontsultak egingo dizkie hainbat hautagairi, eta kontratuaren baldintzak negoziatuko ditu haiekin.

Prozedura honetan, bereizi egin behar dira

que son objeto de publicidad previa en los casos previstos en el art. 177 del TRLCSP, en los que será posible la presentación de ofertas en concurrencia por cualquier empresario interesado. En los restantes supuestos, no será necesario dar publicidad al procedimiento.

En estos casos, el contrato se adjudicará al empresario que sea justificadamente elegido por la unidad de contratación, tras efectuar consultas con diversos candidatos y negociar las condiciones del contratos con uno o varios de ellos. El número de empresarios consultado no será inferior a tres, caso contrario, se motivará dicha circunstancia. La unidad de contratación podrá articular el procedimiento en fases sucesivas, a fin de reducir progresivamente el número de ofertas a negociar, mediante la aplicación de los criterios de adjudicación señalados en el anuncio de licitación, si lo hubiere, o en el pliego. Durante la negociación todos los licitadores deberán recibir el mismo trato.

4.5 Procedimiento dialogo competitivo:

En estos casos el órgano de contratación dirige un dialogo con los candidatos seleccionados, previa solicitud de los mismos, a fin de desarrollar una o varias soluciones susceptibles de satisfacer sus necesidades y que servirán de base para que los candidatos elegidos presenten una oferta. Los órganos de contratación podrán establecer primas o compensaciones para los que participasen en el dialogo.

Serán de aplicación a en estos procedimientos los supuestos descritos en el art. 180, y relación a su tramitación se seguirá lo expuesto en los arts. 181, 182 y 183 del TRLCSP.

5.- ÓRGANOS DE CONTRATACIÓN.

5.1 Las facultades de Contratación de los nominados como “contratos menores”, hasta la cantidad de 18.000,-€, I.V.A. excluido,

SPKLTBko 177. artikuluan aurreikusitako kasuetan aurretiazko publizitatea behar dutenak; izan ere, kasu horietan, interesa duen edozein enpresaburuk aurkeztu ahalko du eskaintza lehiaketan. Gainerako kasuetan, ez da beharrezkoa izango prozedurari publizitatea ematea.

Kasu horietan, kontratazio-unitateak behar bezala arazoituta hautatu duen enpresaburuari esleituko zaio kontratua. Horretarako, aurrez hainbat hautagai egingo dizkio kontsultak, eta horietako batekin edo hainbatekin kontratuaren baldintzak negoziatuko ditu. Gutxienez hiru enpresaburu kontsultatuko dira, eta, hala egin ezean, horren zergatia azaldu beharko da. Kontratazio-unitateak ondoz ondoko faseetan egituratu ahalko du prozedura, negoziatu beharreko eskaintzak progresiboki gutxitzeko.

Horretarako, lizitazioaren iragarkian —halakorik bada— edo pleguan adierazitako esleipen-irizpideak aplikatuko ditu. Negoziazioak irauten duen bitartean, tratu berbera emango zaie lizitatzailerik guztiei.

4.5 Lehia-elkarrizketaren prozedura:

Lehia-elkarrizketan, kontratazio-organoak elkarrizketa egiten du alde aurretik eskaera egin duten hautagai hautatuekin, bere beharrei erantzuteko moduko konponbide bat (edo hainbat) garatzeko, hautagai hautatuek eskaintza bat aurkezteko baliagarria (edo baliagarriak), lantze aldera. Kontratazio-organoek sariak edo ordainak ezarri ahal izango dituzte elkarrizketan parte hartzen dutenentzat.

Prozedura hauetan, SPKLTBko 180. artikuluan ezarritako kasuak aplikatuko dira, eta prozedura horiek izapidetzeko, 181, 182 eta 183. artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.

5.- KONTRATAZIO-ORGANOAK

5.1 BizkaiKOA FEED Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak izango du “kontratu txiki” deiturikoak kontratatzeke ahalmena, 18.000 euroraino (BEZik

corresponderán al Director-Gerente de BizkaiKOA EPEF.

5.2 Aquellos contratos que se encontraren en el tramo cuantitativo entre los 18.000,-€ y 50.000,-€, I.V.A. excluido, podrán ser suscritos de igual manera por el Director-Gerente de BizkaiKOA EPEF, de acuerdo con los procedimientos establecidas en las presentes instrucciones, previa información trasladada del contenido y alcance de los mismos al Presidente o Vicepresidente del Consejo de Administración.

El contrato en cuestión, en todos los términos que integren su contenido obligacional, será expuesto y trasladado al siguiente Consejo de Administración que se celebre, al objeto de su ratificación y/o eventual revocación.

5.3 El Presidente del Consejo de Administración y, en ausencia de éste, el Vicepresidente del mismo, en nombre y representación de BizkaiKOA EPEF, por razones de urgencia debidamente justificadas podrán asimismo celebrar contratos con terceros hasta la cuantía de 50.000,-€, I.V.A. excluido.

5.4 Todos aquellos contratos que sobrepasen la reiterada cifra de 50.000,-€, I.V.A. excluido, en su ámbito decisorio para su adjudicación y otorgamiento, serán competencia exclusiva y excluyente del Consejo de Administración.

6. FORMALIZACIÓN DE LOS CONTRATOS.

6.1 Contenido mínimo de los contratos:

Los contratos celebrados en aplicación de estas instrucciones deberán incluir, necesariamente, las siguientes menciones (art. 26):

- a) La identificación de las partes.
- b) La acreditación de la capacidad de los firmantes para suscribir el contrato.
- c) La definición del objeto del contrato.
- d) La referencia a la legislación aplicable al contrato.

gabe).

5.2 Erakundeko zuzendari-kudeatzaileak, era berean, 18.000 € eta 50.000 € bitarteko zenbatekoak (BEZik gabe) dituzten kontratuak ere izenpetu ahalko ditu, jarraibide hauetan ezarritako prozedurekin bat etorriz. Horretarako, aurrez, kontratuen edukari eta irismenari buruzko informazioa eman beharko zaio Administrazio Kontseiluko lehendakariari edo lehendakariordeari.

Dena delako kontratua, betebeharren edukia osatzen duten zehaztapen guztietan, hurrengo Administrazio Kontseiluan azaldu eta jakinaraziko da, berretsi eta/edo aldi batez baliogabetzeko.

5.3. Administrazio Kontseiluko lehendakariak edo, hura falta bada, lehendakariordeak, erakundearen izenean eta ordezkari gisa, behar bezala justifikatutako urgentziatzko arrazoiengatik, kontratuak egin ahalko dituzte hirugarrenekin, gehienez ere 50.000 eurorainokoak (BEZik gabe).

5.4 50.000 euroko kopuru hori (BEZik gabe) gainditzen duten kontratuak Administrazio Kontseiluaren eskumen eskusibo eta baztertzalea izango dira, organo horrek esleitzeko eta emateko duen esparru erabakitzailearen barruan.

6. KONTRATUAK FORMALIZATZEA

6.1 Kontratuen gutxieneko edukia:

Jarraibide hauek aplikatuz egiten diren kontratuek nahitaez jaso beharko dituzte aipamen hauek (26. art.):

- a) Aldeen identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontratua izenpetzeko duten ahalmenaren froga.
- c) Kontratuaren xedearren definizioa.
- d) Kontratuari aplika dakioken legeriaren

e) La enumeración de los documentos que integran el contrato. Si así se expresase en el Pliego, esta enumeración deberá ser jerarquizada, ordenándose según el orden de prioridad acordado por las partes.

f) El precio cierto, o el modo de determinarlo.

g) La duración del contrato o las fechas estimadas para el comienzo de su ejecución y para su finalización, así como la de la prórroga, si estuviesen previstas.

h) Las condiciones de recepción, entrega o admisión de las prestaciones.

i) Las condiciones de pago.

j) Supuestos en que procede la resolución.

k) El crédito presupuestario o el programa o rúbrica contable con cargo al que se abonará el precio, en su caso.

l) La extensión objetiva y temporal del deber confidencial, que en su caso, se imponga al contratista.

El documento contractual no podrá incluir estipulaciones que establezcan derechos y obligaciones para las partes distintos de los previstos en los pliegos.

Con carácter general, la formalización del contrato se realizará en un plazo máximo de diez días naturales desde la selección del contratista, siempre y cuando no se haya determinado un plazo distinto en los pliegos u ofertas correspondientes.

El consentimiento contractual de BizkaiKOA EPEF, se manifestará mediante la formalización del contrato, entendiéndose con ello perfeccionado el mismo.

6.2 La forma de los contratos

En todo caso, los contratos se celebrarán por escrito no pudiendo BizkaiKOA EPEF contratar de forma verbal, salvo que el contrato tenga carácter

erreferentzia.

e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda. Kontratuan hala jasotzen bada, zerrenda hori hierarkizatuta egon daiteke, aldeen artean adostutako lehentasun-ordenari jarraituz.

f) Benetako prezioa edo hori finkatzeko modua.

g) Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko kalkulaturako datak, baita luzapenentarako datak ere [halakorik aurreikusi bada].

h) Zerbitzugintza jasotzeko, emateko edo onartzeko baldintzak.

i) Ordaintzeko baldintzak.

j) Suntsiaraztea bidezkoa den kasuak.

k) Aurrekontu-kreditua edo kontabilitateko programa edo izenpea, prezioa ordainduko zaionaren kargura, hala badagokio.

l) Kontratistari ezarritako isilpekotasun-betebeharraren iritsiera, denboran eta helburuetan.

Kontratu-dokumentuan ezingo da jaso aldeei pleguetan aurreikusitakoez bestelako eskubide eta betebeharrak ezartzen dizkien estipulaziorik.

Oro har, contratista hautatu eta gehienez ere hamar eguneko epearen barruan formalizatuko da kontratua, betiere dagozkion pleguetan edo eskaintzetan bestelako eperik finkatu ez bada.

BizkaiKOA FEEP Erakundearen kontratu-adostasuna kontratua formalizatzearekin egingo da ageriko, eta hala gauzatuko da kontratua.

6.2 Kontratuen forma

Kontratuak, beti, idatziz egingo dira. Beraz, BizkaiKOA FEEP Erakundeak ezingo du ahoz kontratatu, larrialdietako kontratua ez bada,

de emergencia, según las condiciones establecidas en el art. 113.1 del TRLCSP.

7. PUBLICIDAD DE LOS CONTRATOS

Las exigencias derivadas del principio de publicidad se entenderán cumplidas respecto a la licitación de contratos cuyo importe supere los 50.000€ con la información relativa a la misma en el perfil del contratante de BizkaiKOA EPEF. No obstante, podrán utilizarse otros medios

alternativos y/o adicionales de difusión, incluyendo la posibilidad de recurrir a los boletines oficiales, publicaciones locales o el Diario Oficial de la Unión Europea.

Sin perjuicio de lo anteriormente expuesto, podrá prescindirse de la publicidad en aquellos supuestos de aplicación del procedimiento negociado explicados en el apartado 4.4 de las presentes instrucciones.

En los contratos de cuantía inferior a 50.000€ para dar cumplimiento al principio de publicidad se utilizará un medio de publicidad proporcionado a la cuantía del contrato, objeto del mismo, características particulares del sector de la actividad a que se refiere, localización geográfica, etc.

8. JURISDICCIÓN COMPETENTE.

El orden jurisdiccional civil será el competente para resolver las controversias que surjan entre las partes, en relación con la preparación, adjudicación, los efectos, cumplimiento y extinción de los contratos que celebre BizkaiKOA EPEF.

SPKLTBko 113.1 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

7. KONTRATUEN PUBLIZITATEA

50.000 euro baino gehiagoko zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioa Bizkaiko Tutoretza Erakundearen kontratatzailearen profilean argitaratuz, publizitate-printzipioaren eskakizunei erantzun zaiela joko da.

Dena dela, lizitazioa hedatzeko beste bitarteko batzuk ere erabili ahal izango dira, eta inolako mugarik gabe jo ahal izango da aldizkari ofizialetara, tokiko argitalpenetara edo Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera..

Hala ere, ez da publizitaterik egin behariko, jarraibide hauetako 4.4. atalean azaldutakoari jarraituz, prozedura negoziatua aplikatzen den kasuetan.

50.000 euro baino gutxiagoko kontratuetan, publizitatearen printzipioa betetzeko, kontratuaren zenbatekoaren, xedearen, jardueraren sektorearen ezaugarri berezien, kokapen geografikoaren eta bestelakoen arabera publizitate-bide bat erabiliko da.

8. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Ordena jurisdikzional zibila izango da eskuduna BizkaiKOA FEEP Erakundeak egiten dituen kontratuak prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz aldean artean sortzen diren auziak ebazteko.